

## 3x3 SASKIBALOI TXAPELKETARAKO OINARRIAK

### Non eta Noiz?

Txapelketa **2017ko apirilaren 21 eta 22an** jokatuko da zezen plazan eta Ipurua Kiroldegian.

### Norentzat?

Txapelketa **2003/01/01tik-2006/12/31ra** bitartean jaiotako ikasleei zuzenduta dago.

### Izen ematea

Saskibaloitxapelketan izena emateko epea **2017ko martxoaren 24tik apirilaren 10 arte** izango da.

Lehiaketan parte hartzeko izena emateko bideak:

- Internet bidez: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)
- Telefonoz: 010 edo 943708400.
- Bertaratuta PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Izen ematea doakoa da.**

### Partehartzaileak

Taldea **gutxienez hiru** partaidez osaturik egongo da eta **gehienez lau** partaidez. **Partidu guztietan, taldean izena eman duten partaide guztiek jokatu beharko dute, bestela partidua galdutzat emango zaie.** Taldea inskribatuko da izen ez iraingarri batekin eta harremanetarako partaide baten helbide elektronikoa eta telefonoa adierazi beharko dira.

### Norgehiagokak

Izena eman duten talde kopuruaren arabera, antolatzaileak talde ezberdinen arteko norgehiagokak eta jokatze denbora tarteak zehaztuko ditu.

### Sariak

Saski Baskonia saskibaloitaldeak adin tarte bakoitzeko talde irabazleko jokalaritako bakoitzeko bina sarrera oparituko ditu, Gasteizko Buesa Arenan saskibaloitartida bat ikusteko.

### Antolakuntza

Txapelketan zalantzaren bat edo beste suertatuko balitz, antolatzaileak momentuan erabakitze ahalmena izango du.

Txapelketa honetan izena emateak bai oinarriak bai arauak eta bai kirol-epaileen erabakia onartzea suposatzen du.

### Jokoaren arauak

1. araua.- Saski bakarrean jokatzen da.

2. araua.- Talde bakoitzeko 3 jokalarik hasiko dute partidua, gainontzeko taldekideak ordeko moduan egongo dira.

3. araua.- Jokoa 15 puntutara izango da eta bi puntuko diferentziaz irabazi beharko da. Jokoaren gehienezko iraupena 10 minutukoa izango da denbora jarraian (denbora

etenik ez da egongo). Gehienezko iraupena izena emandako talde kopuruaren arabera zehaztuko da. Denbora amaitzean puntu gehien dituen taldeak irabaziko du.

4. araua.- Jokoan den partidua berdinketan amaitzen bada, araututako denbora amaitzen den unean jokoan diren taldekide guztiek jaurtiketa libre bat egingo dute eta saskiratze gehien lortzen duen taldeak irabaziko du. Berdinketan amaituz gero, ordezkoek botako dute. Berdinketa jarraituz gero, banaka jaurtitzen joango dira puntu bateko diferentzia gertatu arte.

5. araua.- Saskiratze bakoitzak puntu 1 balio du. Hiruko marrik haratago egiten diren saskiratzeek 2 puntu balio du. Jaurtiketa libreak puntu bat balio du.

6. araua.- Aurreneko baloiaren jabea zozketa bidez zehaztuko da.

7. araua.- Baloia jabetza aldatzeko bakoitzean, defentsa-errebotearen edo baloi lapurreta baten ondoren, baloia hiruko marrik haratago irten beharko da.

8. araua.- Saskiratze bat izan ondoren, baloia taldez aldatzen da eta jokoa kantxaren erdialdetik hasten da.

9. araua.- Baloia kanpora irteten baldin bada, alboko marrik jarriko da jokoan.

10. araua.- Bi aurkarien artean lehia gertatzen bada, baloiaren jabetza defentsan zebilen taldearentzat izango da beti.

11. araua.- Faltak beti alboko marrik aterako dira. Taldeko 8. faltatik aurrera, falta guztiak jaurtiketa libre batekin zigortuko dira. Jaurtiketa librea sartuz gero baloiaren jabetza taldez aldatuko da; jaurtiketa librea huts eginez gero, baloiaren jabetzak jaurtiketa librea huts egin duenarentzat izaten jarraituko du.

12. araua.- Jokalari batek 5 falta egingo balitu kanporatua izango litzateke. Talde batek jokoan jarraitu ahal izango du taldekide bakar batez geratu arte. Egoera hori gertatuko balitz, kantxan taldekide gehien dituen taldeak irabaziko luke partidua.

13. araua.- Nahitako kolpeak edo faltak ez dira onartuko eta jaurtiketa libre batez zigortuko dira eta baloiaren jabetza kolpea jasan duen taldeari egokituko zaio.

Goza dezagun joko garbiaz, kiroltasunez eta euskaraz.

Ondo pasa!